

Egunen gurpilean

Joan Altzibar

"Antes roja que rota"

Hauteskundeak dira Euskal Komunitate Autonomoan eta Espainiaren batasuna omen dago jokoan. Gu enteratu gabe. Auzia, inondik ere, nazionalismo espainolaren eta abertzaletasun independentistaren artean dago. Baina horretaz espainolak ohartzen dira ongien.

Espainiaren batasunaren izenean, PSOErentzat eskatu omen du botua polizi talde batek. *ABC* egunkari eskuindarrak ere nahiago du alderdi espainol batentzako botua, nahiz alderdi hori ezkerrekoa izan, edozein alderdi euskaldunentzako baina, ideologikoki hurbilagoa izanik ere: "...no es rechazable —idazten zuen atzo—, que electores de centro y derecha voten, en conciencia, al PSOE como fórmula para salvar lo esencial: la unidad de la patria española".

José Antonio Primo de Riverak aspaldi (1934) esanda:

“La unidad de España es lo único y lo último que nos queda como asidero para reconstruir a España como una nación. No es posible abandonar este asidero último. Antes cualquier catástrofe, porque siempre será de grado inferior a ella”.

Logika bera zuen Donostiako Urumea frontoian José Calvo Sotelok esanak (1935):

“Yo digo: entre una España roja y una España rota, prefiero la primera, que sería una fase pasajera, mientras que la segunda seguiría rota a perpetuidad”.

Bai, noski, Espainia zatikatua baino hobe da Espainia gorria, batez ere gorritasun hori PSOErena bezain horia denean. (*Azaroak* 29).

Azaroak 30: hauteskunde espainolak

Juan Cebrían, *El País* egunkari espainolaren zuzendarriaren artikulua irakurri nuen atzo bere egunkarian: “Los últimos verdaderos españoles?”. Komunitate Autonomoko hauteskunderiez ari da, alderdi politikoez gehienbat.

Beste gauza askoren artean, Euskal Herriko konportamendu politikoa aztertzen du, euskaldunok ulertu nahian. Nola, bada, euskaldunak ulertu? Erraz: “los últimos verdaderos españoles” gara gu. Espainia zaharraren akats guztiak ditugu, hala nola, fundamentalismo ideologikoa, intolerantzia, erlijio-politiken nahastea. Espainiaren legenda beltz osoa, guretzat orain. Espainia, izen hori daraman Estatua, dagoeneko europarra da, homologatua. Euskal Herria, aldiz, Espainia. Iraultza bat beranduago goaz euskaldunok.

Gaur goizean bertan Amando de Miguel soziologo orojakileak gauza beretsua aipatu du berriro Luis del Olmoren irratsaioan: “hauteskunde oso espainolak” izan direla hemengoak. Botu espainolista nagusitu delako ote? Ez, noski. Baizik eta moduagatik, jokoan dagoenagatik, estiloagatik. Haserreak, agresibitatea, auzo-politika edo “politica de campanario”, aipatzen zituen honek.

Hauteskunde-garaian jadanik bidea erakutsi zigun Maravall ministro katalan-espainolak: “un nacionalista no puede votar a partidos nacionalistas. Un voto es más vasco cuanto más español”. Vizcarra eta vasco-espainolista eskuindar guztien bidetik doa gure Maravall sozialista. Nork ez daki, bada, euskalduna bi aldiz espainola dela?

Hau nahastea. Ez dakigu oraintxe zer den euskaldun izatea. Zer gara: “Los últimos verdaderos españoles”, Cebrián-en erara? Edo, Madariagak esan omen zuen bezala, “esos españoles que se creen no serlo”? Edota, Gregorio Morán-ek idatzi bezala, “los españoles que dejaron de serlo”? Auskalo! Garbi samar geratzen den gauza bakarra: “espainolak izatea” zerbait lotsagarria dela, nonbait, espainolentzat berentzat ere. Hori esanez iraindu nahi bagaituzte... (*Azaroak* 30).

The day after

Bai, hauteskundeak pasa dira, eta *ABC* egunkaria ez dago pozik. Lorenzo Contreras kezkatu dago hauteskundeen ondorioez gaurko *ABC*-ko artikuluan:

“Para quienes abrigamos preocupación por la integridad territorial de España, la situación es mala. El bloque nacionalista, por encima de sus diferencias, supera en escaños a cualquier combinación que se haga desde la óptica del Estado y de España, en definitiva. Lo nacionalista devora a lo nacional. No reconocer esto es ponerse en disposición de errar y no entender lo que ocurre”. (*Abenduak* 2).

Durangoko Azoka'86

Abendukoa, noski. Zeren eta, oraingoz, Durangoko Azoka abenduan ospatzen dena bait da, eta ez maiatze-koa, ohitura berriak sortu bitartean behintzat.

Azoka ederra izan da. Ez da jende-faltarik izan. Baina egon behar zuketzen guztiak ez dira han izan. Hutsune nabarmenak.

Bat, eta lehenengoa, idazle “kotsagratu”en hutsunea. Han ikusiko genituelakoan geunden, eta ez ziren agertu. Oso okupatuak, inondik ere. Durangok ez diola behialako “poxa” ematen esan du horietako batek. Ikusten denez, idazleak protagonismoa behar du, liburu-azokan ere.

Komertzianteen eta erosleen azoka dela Durangokoa, esan dezake norbaitek, edozein azoka bezala. Azoka horren kultur dimentsioa defendatu dugu guk, eta eduki ere baduela uste dugu, baina tira.

Izan, editoreen Azoka da Durangokoa. Baina idazleak hantxe egon behar du presente, parte hartuz. Idazleen “krema” han ez badago, zer egin behar dugu besteok? Idazleen Elkartearen aurtengo ausentzia ere ez da ulerterraza.

Bigarren ausentzia nabarmena, politikoena izan da. Honelakoetan ikusten da ongien zein den euskal politikoen kultur jarrera. *Chapeau* Arzallusi eta Makuari, sinpleki agertu egin direlako. Non ziren besteak? Eusko Jaurlaritzakoak? Alderdietakoak? Hain abertzaleak, hain euskaltzaleak denak (hauteskunde aurretik). Ai hauteskunde-bezperatan ospatu izan balitz Azoka!

Hirugarren hutsune bat ere bazen: euskal telebistarena. ETB pegatinak ematera dedikatu da. Stand hain dotorea behar al zuen horretarako? (*Abenduak 8*)

50 urte ondoren, kale berri bat Gernikan

George L. Steer kazetari ingelesari kale baten izena eman behar omen diote Gernikan. 1936ko gerran *The Times*-eko korrespondentia zen eta *El árbol de Guernica* idatzi zuen kazetari honek. Lekukotasun bikaina eskaini zuen, Gernikan Francok egindako txikizioaren argazkiak

argitara eman ez eta berak ikusitakoaren berri zehatz eskainiz.

Nortzuk eta nola erre zuten Gernika, azaltzen du liburua honek. Besterik gabe. Egia ofiziala besterik zen, ordea. Debekaturik zegoen Gernika alemanek erre zutela esatea. Bertsio ofizialak zioenez, gorriek erre zuten Gernika. Hain gaiztoak ziren, izan ere!

Steer-en liburua begi-irekitzaile eta kontsolamendu izan zen gerraosteko lehen belaunaldiarentzat. Nik neuk etxetik bertatik banekiena, idatzirik ikusten nuen orain, azkenean. Egia ofizialak ofiziala izanez jarraitzen zuen, baina ez zen egia. Egia, Steer-en liburua bezala, klandestinoa zen, isilpekoa, mantupekoa, pertsegitua, zigortua.

Frankismoa horretaraino iritsi da: datu historiko soila ukatzeraino, deformatzeraino. (*Abenduak 17*).

Hasenfus indultatu egin dute

Urriaren 6an Nikaraguako Gobernu sandinistaren aurka borrokan ari diren "kontra" direlakoei laguntzera zetorren Hasenfus iparramerikarra. El Salvadoratik zetorren abioia bota egin zuten sandinistek. Bizirik gelditu zen bakarra, Hasenfus. 30 urtetara kondenatu zuten tribunalek.

Eta, orain, gobernu sandinistak askatu egin du.

Sandinismoaren izpirituarekin bat dator jokaera hau. Barkamena, "konbertsioa"n sinestea, heriotz zigorrik eza... sandinismoak aldarrikatu eta praktikatu egin ditu.

Baina keinu gizatiar edo "gesto humanitario" bezala ulertu behar ote da oraingo hau ere? Ezetz esango nuke. Politikoki ulertu behar dela arazoa, uste dut.

Managuako Gobernuaren bozeramaileak esan du, askatasun hori herri amerikararentzat mezu bat dela, Nikaraguak bakea nahi duelako mezua. Hori bai.

Hasenfus askatzea eta bere herrira bidaltzea, opari pozoindua da, frantsesek esan ohi duten *cadeau empoisonné*. Zergatik? Kongresuko Batzordeek deitu egingo dutelako Hasenfus deklaratzera. "Iran/kontrak" eskandaluko piezak elkarrekin josteko, garrantzizkoa dateke Hasenfus. El Salvadortik zetorren, gainera, Hasenfusen abioia.

Eta, gero, hor dute eskuartean nikaraguarrek Sam Nesley Hall, espioi amerikarra. Gero eta argiago dago, Nikaraguan aspaldidanik, eta kanpoan orain, amerikarren interbentzio zuzena Nikaraguan. (*Abenduak 18*).

Hizkuntza eta biolentzia: arrakasta gutxi

Astealdi bat antolatu du Donostiako Soziolinguistika taldeak titulu honekintxe: hizkuntza eta biolentzia. Hiztaldi-sail ederra, paperean behintzat.

Ederra ala txarra izan zen, ezin askok esan. Entzulego urria izan da daturik nabarmenena.

Zergatik gertatzen ote den, geure buruari galdezka egon gara afaritakoan.

Propaganda eskasari errua egozte da errazena. Eta denok pozik. Bai, oraingoan propagandak huts egin du, egia da. Baina publizitatea artez eta zuzen eratuta ere, ondorio beretsutan aurkitu izan dira inoiz antolatzaileak.

Garai txarra dela esan du beste batek. Ona noiz den, galdetu diot. Erantzunik ez.

Ez ote du, bada, gantxorik gaiak? Duela urtebete, gai berarekin mahainguru batean areto hau berau gainezka izan zen. Orduko arrakastak ekarri omen du oraingo astealdi hau, gainera.

Hizlariak izango dira, orduan, gantxo-gabeak. Hizlari-sorta ikusita, nekez aurki daiteke bide horretatik esplikaziorik.

Orain eta hemen jendea “passa” egiten omen da, dio beste batek, ustez arazoaren iturburua joz. Baina lehen-goan gaude, diot nik. “Passa” bai, bale, baina zertatik: hitzaldi-sistematik?, gai-mota hauetatik?, hizlari hauetatik? Ala denetik? (*Abenduak 19*).

El Salvadorko berriak

El Salvadortik aldizkaritxo bat jaso dut, idazmakinaz joa, pobrea, El Salvador bera bezala.

Azken orrialdean datu soil batzuk dakartza, gerra zibila eta urriko lurrikara parez pare jarritz:

Gerra	Lur-ikara
60.103tik gora hildako	1.000tik gora hildako
600.000tik gora lurrez aldatu	30.000tik gora etxe desegin
6.013tik gora desagertu	1.000tik gora desagertu
1.200.000tik gora exiliatu	10.000 zauritu
1.045etik gora preso politiko	200.000tik gora kaltetu

Eta hau denau lurrez Nafarroa baino handiago ez den eta bost milioi lagun bizi den herrialde batean. Parez pare ez baino elkarren gainean jartzekoak dira datuok. (*Abenduak 26*).

Aita Santuak euskaraz?

PNVko deputatu den Iñaki Anasagastik Gabonetako zorion-agurra euskaraz egiteko erregutu dio Aita Santuari, Europako hizkuntzarik zaharrena euskara dela eta edo.

Ohitura du Aita Santuak, abenduaren 25ean, Eguberri, aitz hizkuntzatan zorion-agurra opatzekoa. Aurten 50 hizkuntzatan egin du. Eta euskara falta, nonbait.

Eskatzeari ongi deritzat. Egiteari ere bai. Eta zer?

Honelako jarrerak, beti ere, kezkatuak uzten naute. Euskara sinbolo eta bandera da.

Garrantzizkoena ez al da, bada, "euskaraz bizi" tzea? Horixe, euskaraz bizi, baina ez Vatikanon, Euskal Herrian baizik. (*Abenduak 29*).

Aita Villasante, "Kamasutra" eta Antonio Burgos

Chapeau *Egin*-i, abenduaren 28an argitaraturiko inuxentadagatik. Nork eta Aita Villasantek euskaratu, zer eta *Kamasutra*, *Ars Amandi*. Bat baino gehiago joan omen da liburudendara *Kamasutra*-ren bila. "Inuxente, inuxente" oihukatu ohi dute hurrek honelakoetan.

Denetan inuxenteena, beste bat izan da, Sibiliako kazetari espabilatua, Antonio Burgos. Denetan inuxenteena? Ez dakit. Baina denetan maltzurrena eta gaiztoena bai, hori bai. Honek, Antonio Burgosek, Luis del Olmoren irratsaioan, "La Chispa" izeneko sailean, seriotan hartu du albistea. Eta zukua atera dio berriari. Linguista eta soziolinguista guztiak hankapetik pasa ditu. Burgosek Sibiliatik daki euskara zertarako den gai eta zertarako ez. Borrokarako balio du euskarak, bai, baina piperrik ere ez amodioa egiteko.

Hona pasarte mamitsu batzuk hitzez hitz:

"Para qué es propio el vascuence? El vascuence es una respetabilísima lengua de la España no romanizada. Casi un fósil viviente del tronco de los oscuros orígenes indoeuropeos. El vascuence nos parece muy apropiado para un mítin de Herri Batasuna, para una pintada a favor de la amnistía, para "Presoak kalera", para un editorial de *Egin*, para anunciar una partida de frontón en Anoeta o un concurso de bersolaris.

El vascuence nos suena todo lo más lírico que podemos imaginar para un zortziko a Maitetxu, aún no traducido por Plácido Domingo. Pero hay funciones del alma y del espíritu que no podemos imaginar que puedan realizarse en vascuence. Por ejemplo, el amor. Por ejemplo, y mucho menos, el *Ars Amandi* (...).

Probablemente el "Kamasutra", pienso yo, ha sido traducido al vascuence como un remedio contra la lujuria. Es un Kamasutra para ser leído en Cuaresma (...).

Decididamente, en vascuence se puede hacer una campaña por la amnistía, unos altos hornos, una ampliación de capital, o la botadura de un bulcarrier, pero nunca el amor. El vascuence tiene una estructura ideológica que lo suyo es decir en esa lengua lo de "presoak kalera" pero no para hacer con ella descripciones de la entrepiera de Butragueño. Y es que no hay que darle más vueltas a lo que ya codificó Carlos V, aquel prudente rey del siglo XIV: "A Dios hay que hablarle en latín y a las mujeres en francés". El amor en euskara no lo hace ni Carlos Garai-koetxea.

Ederra bertsoa! Bere garaian Adolfo Suárez-ek erabaki zuen, erabaki, euskarak ez duela zientzia egiteko balio. Eta orduan, kontrakoa erakusteko, Jose Ramon Etxebarria aurkeztu genuen, Leioan Fisika Nuklearra irakasten zuela eta. Nork frogatuko dio orain Antonio Burgosi euskaraz *latrua* jotzea badagoenik?

Honelakorik entzun gabe ginen gaurdaino. Ezagutzen genuen Adolfo Suárez-ek esana. Bagenekien Jose Luis Pinillos eta Jose Luis Lopez Aranguren espainol intelektualek hizkuntza "objektibo eta efektiboa"ren ahalmena ukatu egiten diotela euskarari. Gizarte modernoaren konplexutasunerako ez omen da gai euskara. Baina guk uste genuen, larrua jotzea ez zela ez hain konplexua eta ez hain modernoa.

Frankismoak berak egin zuena baino ere haratago doa Antonio Burgos. Publikotasuna, hots, hizkuntza ofizial, kultural izatea ukatu ohi zion frankismoak euskarari. Sekula ez, etxekoa eta ohekoa izatea. (*Urtarrilak 3*).

Maiatza'68 / Abendua'86

68/86: Dislexikoentzat gauza bera omen. Baina azterketari batentzat? Istiluak, manifestaldi jendetsuak. Hori bietan, bai; baina, nago, berdintasunak baino ugariago eta

handiago direla diferentziak. Bat, nagusiena, gainerakoa esplika dezakeena: 68an gizartea itzulipurdikatu nahi zuten ikasleek, eta gaur gizartean hobeki integratu nahi lukete.

68ko maiatzean ez zen hildakorik izan. Eta oraingoan bada dagoeneko bat, Malik Oussephine, 22 urtekoa, jatorriz algeriarra, naziotasunez frantsesa.

Aipatu integratze-ildotik, kanpoko slogan eta errebindikapenak uste dut bigarren graduak direla, hots, borrokaren beraren deribazioak, eta konkretuki, ikasle magrebiar hori hil ondorengoak.

Bide batez, ohargarri bat. Frantsesak beti frantses direla, gero. Eta Paris beti Paris. Eta zertan esanik ez, Frantzia berdin Paris. Frantzian bai dagoela periferia bihotzetik (Parisetik) urruti. Hildako batek, Parisen, Hezkuntz Ministraria dimisiora darama, eta legetasmoa erretiratzeari lortzen du. Ipar Euskal Herrian GALEk hildakoengatik, aldiz, ez du inork zirkinik egiten Parisen, ez aginteak, ez oposizioak, ez eskuinak eta ez ezkerak. Edozein pertsonak balio bera duen herrian hori. Ikusten da.

Bide batezko beste ohar bat. Frantzian bederen bada dimisiorik. Estatu espainoleko hiztegi politikoetan ez omen da agertu ere egiten "dimisio" hitza. Frantzian demokrazia zaharraren erreflexuek funtzionatu egiten dute *malgré tout*. Antza denez, Espainiako politikoek demokrazia haren bizio guztiak hartu dituzte, eta bertuterik ez.

68/86: ez dago paralelismorik. "Iraultzarik ez dugu nahi" esan dute oraingo ikasleek. Juxtu haiek nahi zutena, lortu ez bazuten ere.

Ez da kasualitatea: 68koa maiatzean gertatu zen, udaberrian. Udazkeneko errebolta da oraingoa. (*Urtarrilak 10*).

1.000 euskal atxilotu politiko 1986.ean

“1986. urtean 990 atxiloketa gertatu dira, eta horietatik % 85i Lege Antiterrorista ezarri zaio eta % 40 bat izan da kartzelara sartu dena”.

Honekin dena esanda dago.

Ba omen dira gisa berean jokatzeko duten arrantzaleak ere: sarea bota, arrain-mota guztiak bildu eta onenskoe-nak bakarrik gorde. Arrantzale hauei zor omen zaie, gero, neurri on batean, gure arrantzaren krisia. Estatuaren sareetan harrapatuta, hor konpon giza eskubideak! (*Urtarrilak 13*).

Katalana, “defecto de forma”

Gaur asteartea da, eta 13. Egunkarian ere nabari da. Notizia txar horietako batean agertzen denez. “Tribunal Constitucional”ak (TC) katalanez egindako errekurtsio bat ez du onartu. Katalanez idatzita dagoelako ez du onartu. “Defecto de forma” dela eta bota diote atzera errekurtsioa Frances Arnau i Arias abokatuari.

Kuriosoa da errekurtsio hori ez onartzeko TCk darabilen argumentua. Konstituzioak onarturiko hizkuntza ofizial bat erabiltzerik egon badago, baina elebakarreko izanik bakarrik, hau da, gaztelania ezagutzen ez bada.

Auziak auzi, hona bere bizian argumentua:

“...si el solicitante de amparo hubiera ofrecido alguna justa razón, demostrando su imposibilidad de comprender la lengua oficial del Estado (lo que en persona que invoca la condición de abogado es altamente improbable) hubiera podido solicitar la habilitación de un intérprete... no lo ha hecho y, por consiguiente, su demanda debe ser inadmitida”.

Lotuta, ongi ere lotuta, daude gauzak. Gaztelania, Estatuaren hizkuntza ofiziala, ezagutzen baduzu, ez duzu zentzuzko arrazoirik, bestelakorik erabiltzeko. Baina nola bizi, ordea, gaztelania ezagutu gabe, Konstituzioak berak ezagutzera behartzen zaituenean? (*Urtarrilak 13*).

1986: 104 lagun hil lan-istriputan

Aurten ere, dagoeneko, urtea estreinatu-berritan, badira ia dozenerdi bat hildako lan-istriputan. Auskalo zein kopurutara iritsiko garen aurten! Iaz 104 lagun hil ziren horrela K. A.an: Araban 18, Gipuzkoan 34 eta Bizkaian 52. Zaurituak aparte, zeren eta larriki zaurituak 593 lagun suertatu omen ziren eta.

Erraz esaten da: 104 hildako. Europako eskualderik emankorrena omen gara heriotz mota hauetan. Eta hale-re, zein sentiberatasun eskasa (hobe, ezteusa) erakutsi ohi dugun. Ez ote kezkatzekoa?

Hasi-berri dugun urteari begira, perspektibak ez dira hobeak. Diotenez, langabezian datzake lan-istripuen ugaltzearen arrazoietakoa bat. Lanik ezaren izuz eta bel-dur, harritzekoa ote edozein lan edozein kondiziotan hartzea? Lanaren kamikazeak, edo: “el salario del miedo”. (*Urtarrilak 21*).

Hauteskunde-ondoa, ondorioz betea

Hauteskundeen “bixamonak” luze dirau, luzeegi.

Bi hilabetetik gora pasa da. Eta ez dugu Gobernurik. Eta izateko esperantzarik bai, ala?

Hau bai dela laberinto politikoa (horren modan dagoen hitz magiko hori —laberintoa— erabiltzeko). Irteera-bidetik badoazela uste duzunean, hara non berriz abiapuntura itzultzen zaizkizun beti. Eta honela behin eta berriz. Aspertzeraino.

Ez dut uste politikari (nahiago baduzu, Politikari) egoera honek mesederik egindo dionik. Aldi, umore, espektatiba, esperantza, irudipen, konfidantza desberdinetan —eta, inoiz, kontrajarrietan— aurkitu gara, oinezko garen eta “alta política”ko sekretuetara sarrerarik izan ez dugun zu eta biok. Baietz politikaz oka eginik bukatu batek baino gehiagok!

Hauteskundeak gertatu-berritan, lehen orduko “bixamona”ren ondoren, botua analizatzera jo genuen. Analsien aldia zen.

Alderdi-gizonen erronda hasi zen gero: elkarrizketak, bilerak, itunak, deklarazioak. Eta ber denboran, esamesak, zurrumurruak, susmoak, sasi-informazioak. Analsiak utzi eta kinielatara jo behar izan genuen, informazio-faltaren faltaz.

Eta gaur? Alferreko dira analsiak; helburu gabeko, kinielak. Informazioa informazioaren gain, deklarazioa deklarazioaren gain. Baina ezin fida. Informazioa ez da informatzeko, deklarazioa ez da argitzeko. Kontrara baizik. Ez dute bilatzen zu baitan efekturik, beste norbaitengan baizik. Dagoeneko ez dugu jokoan parte hartzen. Ikusle gara, espektadore. Edo hori ere ez.

Hau denau amaitzeko (ez diot “soluzionatzeko”), zenbat falta ote da oraindik? (*Urtarrilak 31*).

Moroak eta kristauak

Fermín Bocos-ek Aomar Mohamedi Dudu-ri egindako entrebista entzuteko parada izan dut bart. “Entrebista”, hitz ponpoxoa da gertatu zena definitzeko, baina tira.

Melilla zen solasgaia. Itxuraz hori ere, itxuraz bakarririk, zeren eta Bocos-ek, antza denez, gauza bat bakarra nahi zuen. Dudu desegin: gezurtitzat, lapurtzat, traidoretzat jo zuen. Dudu-ren tesien edo ikuspegien aurka kazetariaren *deber patrio* aipatu zuen kazetariak berak, Bocos-ek. *Ser* irrati-kateko “Hora 25” irratsaioaren buru da Bocos.

Otsoekin mantso eta ardiekin otso hau ere? Bocos oso mantso eta goxoa da batzuetan eta batzuekin. Baina Espainiaren batasuna auzitan jartzen dela ikusten duen edo

iruditzen zaion orduko, otsoa da. Ez du barkatzen, ez du mintzatzeko uzten, nork bere ikuspegiak azaltzeko aukerarik eta patxadarik ez du ematen. Aldian aldiko, polizia, militante politiko eta epaile bilakatzen da Bocos. Dudu-rekin honelaxe jokatu zuen. Eta euskaldun batzuekin ere berdintsu egina da.

Bocos-en kazetaritza salataria da, militantea, borrokalaria.

Tamalez, Bocos ez da salbuespen Espainian, prentsa estatalean. Politikara lerratuegi dago kazetaritza. Liberalismo gutxiegi ikusten da bazterretan. Une honetan, kazetaritzaren egitekoa ez da informatzea, eritzien pluraltasuna plazaratzea, ez. Plataforma barik, *rocaforte* dira komunikabideak gaur eta hemen. Aspaldian iruditzen zait, gizon politikoen deontologiaz jokatzeko dutela kazetarietakoak. Eta ez da hori.

Diodanaren frogarik hoberena, bart izan dut. Dudu moroa da. Bocos kristaua. Teatro zaharretan eta pastoraletan bezala, arrazoia beti kristauak du. (*Otsailak 3*).

Batasuna eta independentzia

“Ni la unidad del Estado español ni la independencia de Euskadi son intocables”.

Egunkarietako diotenez, hauxe deklaratu du Iruñean Jose Antonio Pagolak, Donostiako elizbarrutiko Bikario jaunak.

Begien bistakoa dirudi; eta, halere, esan egin behar. Eta esanda, notizia bilakatu. Ez da nonbait hain begien bistakoa, hain ebidentea. Ebidentzia nobedade denean, asunto txarra.

Euskadiren independentzia ez dela ukiezina? Defendiezina den neurrian izan da ukiezina. Hain ukiezina, non printzipioa bera ere ezin bait zen defendatu, gutxiago haren alde borrokatu.

Ez dela ukiezina Espainiaren batasun sakratua? Bata-sun hori auzitan jartzeak zeu zaramatza auzitara. Auzitara, eta gero ifernura ez, baizik kartzelara, deskuidatzen bazara.

Esan beharra bazegoen, bai, baina esatea alferrik izan-go da. (*Otsailak 7*).

Irakaskuntza separatista

“Una escuela donde no se aprenda a amar a España no tiene razón de existir. Hay que suprimirla”. (...)

Gerraoste hurbileko testu bat da honako hau. Izpiritu horretantxe hezi gaituzte urtetan aurreratuxe gaudenok.

Urteak pasa dira. Baina alferrik nonbait. Bide beretik eramán nahi lituzkete oraintxe bertan ikastolak ere, bazuk behintzat.

Ikastoletako “irakaskuntza separatista”z galderak egin dizkio Gobernuari Robles Piquer CPko senatoreak eta Fragaren koinatuak. Ana Ariz sozialistaren deklarazioez baliatzen da horretarako. Arizek, Anak, beste gauza askoren artean esan du, ikastoletan sortzen direla “los futuros apologetas del terrorismo”.

ETak bahitu behar omen zuen Julio Celedonio Albert Ferrero almirantordeak ere bota du berea: “las ikastolas son escuelas donde los niños están aprendiendo a odiar a España”.

Analisietan zein konklusioetan bat dator almirantordearekin *El Alcázar*-en idazten duen Luis Tapia Aguirrebengoa ere gaurkoan:

Hona analisia:

“Las ikastolas iniciaron su andadura en los años sesenta, por la estupidez o la infidelidad de unos funcionarios del antiguo régimen, y, en menos de una generación, han llevado a cabo una labor demoledora, enseñando a muchos jóvenes vascos a dejar de sentirse españoles, con un

profesorado separatista radical. Y bastará otra generación para que las ikastolas cumplan su misión de borrar de los corazones del pueblo vasco todo resto de españolidad". (...)

Eta hona konklusioa:

“Los falsos optimismos, las proclamaciones de condena, las jeremiadas, las concertaciones políticas, y las negociaciones no son las armas para combatir a este enemigo. La única solución posible sólo pasa por la modificación del título VIII de la Constitución, la disolución de las formaciones políticas que aspiran a la autodeterminación y la independencia, la supresión de las ikastolas, el restablecimiento de la pena de muerte y la declaración y mantenimiento prolongado del estado de sitio en Vascongadas”.

Ezkerra omen den PSOEtik eskuin muturreraino, falange batuan berriz ere “Santiago y cierra España” tar guztiak. (*Otsailak 11*).

Azkenean dirua sobra

Eguna astekari-egunkariak aste honetako “asto gorotza” Fernando Spagnolori eman dio.

Spagnolo, Eusko Jaurlaritzako Ekonomi eta Ondasun-Sailburua da. Bada, honek deklaratu du 20.600 milioitako superavita izan duela Gobernuak. Eta, honela, “la situación financiera del Gobierno vasco es inmejorable”.

Zertan ibili dira orduan hain estu eta larri? Ni ez naiz horretan aditua, baina dirua sobratzea gestio txarraren seinale ei da. Ez dakit. Badakit, aldiz, diru hori non emanik badela eta aurrekontuak murriztuz eta murriztuz ibili direla. Kultura Sailean behinik behin. Edozein eskarik beti erantzun bera izan ohi zuen: “eske... presupostuak jaitsi egin dizkigute aurten”.

Zer da, eta dirua sobra orain. (*Otsailak 12*).

Solchagari eskua joan

Haserre daude gaur sindikatuak.

Estatuko Ekonomi Ministroa, Solchaga jauna, enpresa-gizonekin bildu zen atzo, APDko ihardunaldietan. Eta esan zien, esan, % 5etik gorako gehiketarik ez onartzeko lansarietan. Inola ere ez onartzeko, eta horren ondorioz suerta daitezkeen obreroen istiluei eta gorabeherei ez izateko beldurrik, okerragorik gertatu izan ohi dela eta.

Bi muturretakoak poztea lortu du oraingoan Solchagak. Enpresariak, noski. Baina baita ere ezkertiar batzuk: behingoz bederen, Gobernu honen benetako aurpegia argi gelditu da, diote.

Harritzeaz harritzen dena ere harritu du Solchagak, bai: nola pentsa eta esan zezakeen honelakorik alderdi obrero sozialista —sozialista!— deritzonoko Ministro batek? (*Otsailak 13*).